

andramaixak • Aretxabaleta

Folk izarrak, gauean dirdiratzeko

Alboka taldeak kontzertua emango du gaur; Marta Sebastyen kantari ospetsuak ere parte hartuko du emanaldian

Itxaro Artola | **ARETXABALETA**

Egutegiaren arabera festetako egunik handiena izanik, neurri bereko musikarien emanaldia izango da herriko plazan gauean: Alboka taldearena, alegia.

Eskarmentu handiko lau musikarik –Txomin Artola, Josean Martin Zarko, Joxan Goikoe-txea eta Alan Griffinek– eratu zuten taldea 1994an, eta urte berean kaleratu zuen *Alboka* beren lehen diskoa. Ordura arte ahots lanetan oinarritzen zen, batez ere, Euskal Herrian egindako folka, eta Albokaren diskoa berritzailea izan zen guztiz, euskal kantutegiko dantza eta melodiak gitarra, mandolina, bouzoukia, ttun-ttuna, akordeoia, alboka, gaita, txirula eta kromornoarekin uztartu baitzuten. 1997an Juan Arriola biolin jotzailearekin sendotu zen taldea, eta beste bi lan plazaratu ditu ordutik: *Bi beso lur* 1998an eta *Lorius* 2000n. Azken disko hori beste urrats bat izan zen taldearen jardueran, doinu tradizionaleri kutsu berriko kantak gehitu zizkiolarik.

Euskal kultura munduratzeko

Urteotan, oihartzun handia lortu du Albokak munduko musikak delakoaren barruan, eta hainbat jaialdi entzutetsutan aritu izan da. Hala nola, Dranouter (Belgika), Folkest (Italia), Manifesta 98 (Portugal). Aurten, berriz, Greziako Women eta AEBetako Wyoming estatuko Rock Springsen izan da, besteak beste. Nazioarteko



EGUNKARIA

Alboka folk taldearen doinuez gozatzeko aukera izango da gaur gauean, herriko plazan.

irteera horietako batean, Hungariako Szekesfehenvarreko jaialdian, hain zuzen, elkar eza-gutu zuten 1996an Albokakoe eta gaur egun kolaboratzaile duten Marta Sebastyen hungariarrak. *The english patient* filmaren soinu bandagatik Oscar saria jaso zuen kantariak, eta jaialdi hartako zuzendari artistikoa zen orduan. Albokaren azken diskoan ere aritu zen, eta bost kanta euskaraz abestu zituen. Gaur gauean plazako oholtzan entzun ahalko dugu.



ARETXABALETAKO UDALA

Goiz eta arratsalde zuzeneko parkea izango da plazan.

EGITARAUA

GAUR

- 10:00:** Herriko txistulariekin diana herriko kaleetan.
- 11:00:** Umeentzako parkea izango da, herriko plazan.
- 11:30:** Kalejira Deikatzeluko musika bandaren eskutik.
- 12:00:** Meza nagusia Udalbatzaren parte hartzearekin. Elizkizunaren ostean *alkate soinu* joko dute txistulariek.
- 13:00:** Deikatzeluko musika bandaren kontzertua herriko plazan.
- 17:00:** Haurrentzako parkea herriko plazan.
- 18:00:** Herrikoen pilota partidak Iturigorri frontoian.
- 19:00:** Alkora perkusio taldearekin kale animazioa.
- 23:00:** Alboka folk taldearen emanaldia herriko plazan.
- 01:00:** Zaragozana pirotekniaren eskutik suzko errobera ikusgarriak industrialdean.

**URKULU, S.L.**

Hornidurak
Mitarte, 23
20550 ARETXABALETA (Gipuzkoa)
Tel.: 943 79 96 66
Faxa: 943 77 10 33

**EGUZZIGRAF**
INPRIMATEGIA

• LIBURUAK • ALDIZKARIAK
• KATALOGOAK
• MERKATAL INPRESOAK
• FILMATZE ZERBITZUA

Basabe poligonoa - Tel.: 943 79 18 44
Faxa: 943 79 29 41 - ARETXABALETA

**URBALTZ TABERNA**
Jaiak bai borroka ere bai
Mitarte, 19 - ARETXABALETA

**IOSU**
HARATEGIA
TXARKUTERIA ETA
PLATER PRESTATUAK
MITARTE, 1 • Tel.: 943 77 03 08
ARETXABALETA (Gipuzkoa)

Nafarroa etorbidea, 9
Tel.: 943 71 24 25
Faxa: 943 71 22 98
20500 ARRASATE

**MEMESA**
INDUSTRI HORNIDURAK

Santa Krutz, 25
Tel.: 943 71 24 11
Faxa: 943 71 21 19
20550 ARETXABALETA

ZARAIA
taberna

Goizeko 5,30etatik
zure zerbitzura
Araba etorb.
ARETXABALETA
☎ 943 79 88 95